

**ezagutzen al
duzu
Donostia?**

Habana

Igeldo herriko Arrokaldea auzoko Markalluta hegiaren gainean Lapabidera doan bidearen ondoran dago Habana baserria Kubako herri eder horretan izandako «amerikano-ren» batek jarri zion izen hau noski! Bizkar honen gainean Habanari itsasoko haize bortitz guztiek eragiten diote baina lehiorik gabeko hormatzar handi batek babesten du Bizkai-ko Itsasotik datozkion erauntsietatik. Habanak bezalako ikusmira politak dituzten baserri ugari daude Igeldoko Arrokaldean, baina ongi babes- tuak mendebaldeko haize- ez Igeldoko Arrokaldea lubizi lekua da, eta Habana inguru honetan ba omen zen beste baserri zahar bat aspaldi galdua, ekaitz baten ondoren izan zen lubizi haundi batek estali zuelako.

Handik hiru egunera Habanakoek baserri hartako oilarra kukurruku egiten somatu omen zuten halabaina! Igeldoko zahar- rrengatik entzuna dut eta entzuna bezala kontatzen dut historia harrigarri hau. Dena dela Habana eta Bekoetxeberri base- rrien artean, oraindik urte asko ez dela, teila batzuk eta baserri zahar baten aztarnak aurkitu ziren.

JOSU TELLABID



Donostiako kantutegia



J.I. ANSORENAK proposatua

Ume eder bat

1

Ume eder bat ikusi nuen
Donostiako kalean.
Hitz erditxo bat hari esan gabe
nola pasatu parean?
Gorputza zuan liraina eta
oinak zebiltzan aidean,
politagorik ez det ikusi
nere begien aurrean.

2

Aingeru zuri paregabea,
Euskal Herriko alaba.

3

Usterik gabe zugana beti
nere bihotzak narama.
Ikusi nahian, beti hor nabil,
nere maitea hau lana!
Zoraturikan hemen naukazu,
beti pentsatzen zugana.

Galai gazteak galdetzen dute:
aingeru hori non dago?
Nere maitea nola deitzen dan
ez du inortxok jakingo.
Ez berak ere ez luke nahiko,
konfiantza horretan nago.
Amodiodun bihotz hoberik
Euskal herrian ez dago.

KOMENTARIOA: Jose Maria Iparragirrek (1820-1881) sortu zuen oso eza- guna den abesti hau. Garaiko topikoak erabiliz maite izkutu baten edertasuna goraiipatzen du gaur egun begi onez ikusiko ez genituzkeen jarrerak azalduz: «Hitz erditxo bat hari esan gabe, nola pasatu parean?». Aingerutxoa Donostia- ko kalean ikusi zuenez, egokia iruditu zait Irutxulora ekartzeko.

Bi doinu kantatzen da. Bata Iparragirrak berak sortua. Eta bestea -ederra- goa, nire ustez, baina ez hain ezaguna- Jose Antonio Santestebanek (1835- 1906) beranduago jarria.